

Etorkizuna

innobasque

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Glosarioa ↓



E du ki a ↓

Adimena	4
Aurrea hartzea	4
Aurreikuspena, pronostikoa	4
Beltxarga beltza	4
Berrikuntza aurre-hartzailea	4
Berrikuntza aurre-hartzailearen gobernantza	4
Egoerak	5
Etorkizuna	5
Etorkizunerako alfabetatzea	5
Etorkizuneko kontaktak	5
Etorkizun onargarriak	5
Etorkizunen pentsamoldea	5
Etorkizun posibleak	5
Etorkizun probableak	5
Etorkizun proiektatua	5
Gobernantza aurre-hartzailea	6
Hausturak, etendurak	6
Horizon scanning-a	6
Joera	6
Megajoerak	7
Nahi diren/nahiago diren etorkizunak	7
Prospektiba	7
Seinalea	8
Wild card-a	8
Zaintza	9

Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentziak 10 urte baino gehiago daramatza prospektiba lana egiten, txostenak eta artikulatuak eginez, seinaleak partekatuz, prestakuntza emanez eta, labur esanda, Euskadiko erakundeen artean prospektibaren kultura sortzen lagunduz. Etorkizunari begiratzeko kultura, hain zuzen.

Prospektibak ezagutza-arlo gisa hartu duen garrantzia eta batzuetan interpretazio anitz dituzten zenbait kontzepturen konplexutasuna dela eta, iruditu zaigu egokia dela gehien erabiltzen diren terminoen definizioak argitu eta adostea.

Esparru horretan lan egiten duten eta duela hainbat urte gurekin lankidetzan jarduten duten erakunde kideen laguntzarekin, glosario hau sortu dugu, prospektibaren termino nagusietako batzuk argitu eta adosteko.

A

Adimena

Adimena erabakiak hartzeko balioko duen ezagutza sortzeko informazioari zentzua emateko prozesua da¹.

Aurrea hartzea

Pertsonak eta erakundeek etorkizunean etorkizun onargariak esploratu, ulertu eta horietarako prestatzeko duten gaitasuna da, etorkizunen pentsamoldea erabiliz.

Aurreikuspena, pronostikoa

Etorkizuneko gertaera edo joera baten probabilitatea aintzatestea, iraganaren eta orainaren analisi kuantitatiboetan oinarrituta.

B

Beltxarga beltza

Gorabehera guztiz ezohikoa da, aurreikusi ezin dena eta eragin handia duena, historia nabarmen alda dezakeena. Aurreikusteko zaila den arren, behin gertatuta, elkarren segidako ondoreak ditu, eta azalpenak bilatzeko joera dago, hasiera-hasieratik begien bistakoa izan balitz bezala. "Wild card" direlakoak ez bezala, beltxarga beltzak espero ez diren gorabeherak dira, eta agerian uzten du gizakiok inguruaren konplexutasunaren inguruan dugun ezagutza mugatua.

Berrikuntza aurre-hartzailea

Etorkizunari buruzko ezagutzatik abiatuta egun balioa sortzen duten produktu, prozesu, zerbitzu, teknologia, politika eta abar berriak egiteko jardutean datza.

Berrikuntza aurre-hartzailearen gobernantza

Berrikuntza aurre-hartzailea ahalbidetu eta sustatzen duten egiturak eta mekanismoak dira.

E

Egoerak

Egoerak istorio koherenteak dira, gai jakin bati buruzko etorkizun onargarrien testuinguruen multzo bat deskribatzen dutenak. Fikzioak dira, eta horien bilakaera aztertu behar da orainarekin egon litezkeen hausturak identifikatu eta dauden aukerak eta horien ondorio posibleak ezagutzeko, edo orainean erabaki ahalik eta egokienak hartzeko.

Etorkizuna

Heltzeke dagoen garaia.

Etorkizunerako alfabetatzea

Gaitasun kognitiboak (pentsaera sistemiko, kritiko eta aurre-hartzailea) eta jardunbideak (joerak, tresnak, egoerak) konbinatzen ditu, modu kritikoan pentsatzea, joera emergenteak ulertzea eta erabaki informatuak hartzea ahalbidetzeko, zalantzarik gabeko testuinguru konplexu bati aurrea hartu ahal izateko.

Etorkizuneko kontaktak

Etorkizun alternatiboak deskribatzen dituzten narratibak dira.

Etorkizun onargarriak

Arrazoizkotzat hartzen diren mugen baitan dauden etorkizuneko kontaktak dira, orainaren inguruko ezagutza eta dagoen ezjakintasun-maila kontuan hartuta.

Etorkizunen pentsamoldea

Etorkizunen pentsamoldea gerta litezkeen alternatibak daudela ulertu eta onartzea da, eta horiek etorkizunean kontuan hartzeko beharra ulertzea, eta horren arabera jardutea.

Etorkizun posibleak

Etorkizuneko kontaktaren tarte zabalena da, eta gerta litezkeen emaitza potentzial guztiak barne hartzen dituzte, horiek gertatzeko probabilitatea edo bideragarritasuna gorabehera.

Etorkizun probableak

Egungo joeretan, ezagutzen diren faktoreetan eta beste adierazle batzuetan oinarrituta gertatzeko probabilitate handiagoa duten etorkizuneko kontaktak.

Etorkizun proiektatua

Ezer aldatzen ez bada gertatuko den etorkizuna.

G

Gobernantza aurre-hartzailea

Arazo konplexuak kudeatzeko estrategiak eta politikak egin eta ezartzeko prozesu osoan zehar prospektiba estrategikoaren sistematika integratu eta aplikatzean datza.

H

Hausturak, etendurak

Joera baten irismen, norabide eta abiaduran gerta daitezkeen bat-bateko aldaketa nabarmenak dira. Halaber, haustura batek joera bitan banatzea eragin dezake.

Horizon scanning-a

Kanpoko ingurunean aldaketaren lehenengo zantzuak identifikatu eta horien jarraipena egiteko prozesu sistematikoa da, erakunde edo lurralde baten etorkizunari eragin ahal dieten joera, mehatxu edo aukera emergenteei aurrea hartzeko.

J

Joera

Eremu jakin batean hartzen ari den bidea adierazten duen eredia da, denboran zehar garatzen dena eta etorkizunari eragiteko eta hori aldatzeko ahalmena duena.

M

Megajoerak

Eskala handiko eta epe luzeko aldaketa-indarrak dira, hainbat eragileri (erakundeak, gizarteak, ekonomiak eta kulturak) nabarmen eragiten dietenak. Joera horiek eragin sakonak dituzte, irismen eta epe luzekoak; eta testuinguruko, hau da, eragileen eraginetik haratago doan inguruko, faktoreen emaitza dira. PESTELE gisa da ezaguna, eta indar politiko, ekonomiko, sozial, teknologiko, ingurumeneko, legezko eta etikoek edo horien bat-etortzeak osatzen dute.

N

Nahi diren/nahiago diren etorkizunak

Gertatzea gustatuko litzaizkigukeen etorkizuneko kontaktak dira; eta, hortaz, pertsona edo erakunde baten itxaropenak eta helburuak irudikatzen dituztenak.

P

Prospektiba

Etorkizuneko informazioa bildu eta epe ertain/luzeko ikuspegia eraikitzeko prozesu sistematiko parte-hartzailea da, egun erabakiak hartzera eta ekintza kolektiboak mobilizatzen bideratua, ziurgabetasunezko giro konplexuari aurre egin ahal izateko.

Prospektibaren ikuspegiaren arabera, honako hauez ari gara:

- ↘ Prospektiba estrategikoa; hau da, etorkizun bat baino gehiago modu egituratu eta esplizituan aztertzea, erabakiak hartzeko oinarri gisa erabiltzeko eta horren arabera plano estrategikoan jarduteko. Edo...
- ↘ Prospektiba teknologikoa; hau da, teknologia emergenteak modu sistematikoan identifikatu, aztertu eta horiei aurrea hartzeko prozesu estrategikoa, epe luzean garapena eta berrikuntza teknologikoa gidatzen duten politikak, estrategiak eta erabakiak eratzeko ezagutza gakoak eskuratzeko.

S

Seinalea

Zantzu emergentea da, maiz ohiko jardunbideei aurre egiten dieten tokiko berrikuntza edo aldaketa txikien bidez adierazten dena.

Hasieran hauteman edo interpretatzeko zailak izan daitezke, baina etorkizun potentzialki garrantzitsuei (hala nola Beltxarga Beltzak, erronkak eta aukerak) buruzko aurretiazko informazioa edo “pistak” eman ahal dituzte; seinale ahul gisa dira ezagunak. Hala ere, indartu daitezke eta joerak agertuko edo aldatuko direla adierazi; eta, beste batzuetan, desagertu egiten dira.

W

Wild card-a

“Wild card” bat egoera bat nabarmen eten edo horretan eragin nabarmena izateko potentziala duen eta aurreikusita ez dagoen edo zalantzazkoa den faktorea da.

Beltxarga Beltza ez bezala, wild card-ak probabilitate oso txikiko gorabehera edo garapenak dira, analisi sistematiko baten irudika edo identifika daitezkeenak, eta sistemen, erakundeen edo gizartearen gainean eragin nabarmenak dituztenak.



Zaintza

Zaintza informazioa modu sistematikoan bildu, aztertu, eraldatu, aintzatetsi eta zabaltzeko prozesua da². Zaintzaren ikuspegiaren arabera, honako hauez ari gara, esate

- ↘ Zaintza teknologikoa, teknologian oinarritua, edo...
- ↘ Zaintza lehiakorra, egungo lehiakideetan eta lehiakide potentzialetan eta horien proiektuetan oinarritua, edo...
- ↘ Zaintza komertziala, merkatu, bezero eta hornitzaileei buruzko informazioan oinarrituta, edo...
- ↘ Inguruaren zaintza, erakunde batetik kanpoko inguruari buruzko informazioa etengabe bildu, aztertu eta interpretatzea. Horizon Scanning-ak ez bezala, horrek eragileen multzo zabalagoa hartu ohi du, PESTELE esparruen antzera, eta epe labur eta ertaineko etorkizuna du ardatz.

* Zaintza eta adimen terminoen definizioak bat datoz UNE 166006:2018 arauan zehaztutakoarekin – ZAINZA ETA ADIMENA negozio-giroaren, lehiakideen eta erakundearen beraren inguruko informazioa bildu eta aztertzeko, eta erabakiak hartze aldera informazio horren esanahia eta eraginak komunikatzeko prozesu etiko eta sistematikoa da.

Glosario

Este glosario ha sido elaborado por el Grupo de Prospectiva, cuya misión es contribuir al avance de Euskadi en materia de prospectiva, construyendo una oferta que responda e inspire el interés y la actividad de mirar hacia el futuro en las organizaciones vascas. Conforman este grupo las siguientes organizaciones.

